

ENPRESAREN (BURGESAREN) INGURUKO IKUSKERA BURGESARI KRITIKA

Zientzia burges ororen ezaugarri deigarrienetarikoa gizartea klase kontraesanetatik at erakustea da, entitate “baketsua” balitz bezala, non partaide bakoitzak ongizatearen eraikuntzan laguntzen duen. Historikotasun falta eta klase sozialak klase biologiko edo natural bezala aurkeztea ere kontzientzia faltsuaren (kontzientzia burgesa) parte da. Ideia hauek komunikabide gehienek zabaltzen dituztenak dira eta marxismoak ideia hauen aurka egiteko egin beharra dauka.

Euskal Herriko Unibertsitate erreakzionarioak enpresari buruz emandako definizioetan ikuspegi kritiko bat izanik argi ikus daiteke aurretik esandako ezaugarrien islada.

Abiguotasuna da gehien nabarmentzen den ezaugarria. Lehenik hau ikus dezakegu:

“Enpresak gizarte osoaren ongizatearen aurrerakuntza, garapen eta hobekuntzan laguntzen du. Lanaren sorkuntza, errenta, ikerketa teknologikoa, kalitatezko produktu eta zerbitzuen eskaintza... gizarte osoaren bizi kalitatearen hobekuntzan parte hartzen duten faktoreak dira”¹

Ez gaitu harritu behar enpresaren funtzioen ohiko aizunketa honek, zeinak jabetza pribatua pertsonen bizi kalitatea hobetzeko helburuarekin sortu zela pentsatzera eraman dezakeen.

Hala ere, bitxia da enpresari buruz emaniko beste definizio batean kapitalismoaren arrazionaltasun gabezia agerian uztea:

“Enpresaren helburu ekonomiko nagusia balioa sortzea da”²

Hau da, lehen enpresaren ohiko jardueraren ondorio bat zirudiena, orain, helburua bilakatu da! Esan beharra dago gaitegi hau idatzi edo erakusten dutenei ez zaiela bururatzen momentu batez ere balioa bera zer den azaltzea (ezta aztertu edota ulertzea ere). Azken hau ere hezkuntza burgesaren beste ohiko ezaugarri bat da, kontzeptuen memorizazioa bere funtsa ulertu gabe.

Bestalde, aipu honek Marx gogorarazten digu, bere lan nagusian hau zioelarik:

“Ekoizleei kontrajarritako ekoizpena eta hauei kasurik egiten ez diena. Benetako ekoizlea ekoizpen bitarteko sinple bezala; aberastasun materiala helburu bezala. [...] Bere helburua produktu eta abar bakoitzak ordaindu gabeko ahalik eta lan ordu gehien izatea da, eta hau soilik ekoizpena bere buruaren menpe jarritz lortzen da”³

Laburbilduz, gure EHuko akademikoek (nahi gabe) diotena, erabilera balioen ekoizpena aitzakia hutsa dela truke balio gehiago sortzeko, eta ekonomiaren (kapitalistaren) helburu bakarra truke balio sortzea dela itsu itsuan eta etengabe. Hau dena, enpresak gizartean ongizatea sortzen duela dioten bitartean. Zenbat enuntziatu kontrajarriak hain lerro gutxitan!

Enpresa aztertzeko beste ikuspegi batzuk aztertuz, klase sozialen existentzia guztiz itxuragabetzen duen definizio bat daukagu:

“Izaera kooperatiboa duen giza antolakuntza edo elkarte jakin bat bezala kontzebitzen duen

1 Euskal Herriko Unibertsitatea: *Economía de la empresa: Introducción*, 2017.

2 Euskal Herriko Unibertsitatea: *Economía de la empresa: Introducción*, 2017.

3 Karl Marx, *El Capital (inédito)*, p.76.

teoria”⁴

Hau da, gizakiak guztiz aske eta kontziente dira enpresa baten parte hartzeko eta honek izaera kooperatiboa duelarik. Honek esan nahi du pertsona bakoitzak enpresaren barruan egiteko jakin bat duela honek funtzionatu dezan. Baina, enpresetan (gehienetan handiak) lan mota ezberdinak soldata eta ezaugarri ezberdinekin existitzen direla jabetzen bagara, hurrengo pentsa genezake: Zergatik erabakiko luke “askea eta kontzientziaduna” den langile batek 8h lan egitea 900€gatik enpresa osatzeko “elkartu” diren zuzendariak askoz gehiago irabazten dutenean lan motzago eta ez hain fisiko batengatik? Hain zuzen ere, EHUK emandako definizioetatik hau ondorioztatu daiteke:

1- Pertsona oro aukera berdinekin jaiotzen dela.

2- Pertsona guztiz kontziente da gizartearen funtsaz eta gai da hau bere osotasunean ulertzeko.

Argi dago ikuskera honek ez duela ulertzen gizarte kapitalista kontraesankorra dela oinarrian, aurkako klase interesekin osatuta dagoela eta honen ulertzea kontraesan hauen gaineko ikasketaren bitartez burutzen dela, Marx, Lenin edota Engelsen neurriko iraultzaileek oso zabal azterturikoa.

Nahiz eta zientzia ekonomiko burgesean enpresaren definizioa ez izan beharrezkoa, ikerketa gai aipagarria da, bertan adierazten baitira kontraesan ugari hauek eta irrazionaltasunaren izaera arrazionala (Marcuse).

4 Euskal Herriko Unibertsitatea: *Economía de la empresa: Introducción*, 2017